



Zuzendari jaun/andrea

Hezkuntza Sailak Eskola 2.0 programa sustatu nahi du ikasturte honetan. Programa horri esker, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgelak, ikasgela digital bilakatuko ditugu.

Aldaketa hori egiteko, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgelak Elkarreraginezko Arbel Digital batez eta irakasle eta ikasleentzako eskuko ordenagailuz hornituko ditugu.

Ikastetxeetan jasoko dituzue ordenagailu eramangarriak, oinarrizko softwarea instalatuta dutela. Oinarrizko konfigurazioak abiatze bikoitza izango du: GNU/ Linux eta Microsoft Windows XP Profesional.

Bi abiatze horietan, Software Ofimatikoa (OpenOffice), Nabigatzailea: (Mozilla Firefox), Birusen kontrako programa eta bestelako aplikazioak instalatuko ditugu. Aplikazio horiek euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak eskaintzen dituztenean, lizentzia librea ezarriko dugu, lehenatasunez.

Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu debekatuta dagoela jabetza intelektualaren eskubideak urra ditzaketen softwareak instalatu eta erabiltzea. Ikastetxearen ustetan egile-eskubideen legeak babestutako softwarearen bat erabiltzea ezinbestekoa izanez gero, eskaera bat egin behar zaio Hezkuntza Sailari. Hezkuntza Sailak, software hori egokia dela erabakiz gero, dagozkion lizentziak emango dizkio ikastetxeari edo antzeko ezaugarriak dituen lizentzia libreko programaren bat proposatuko du.

Plan hori aurrera eraman ahal izateko, ekipamendu-inbertsio handia egin beharko dugu, eta prestakuntzari ere arreta handia jarri beharko diogu. Horrez gain, gure ikasleek landuko dituzten eduki digitalak ere landu beharko ditugu.

Prestakuntza Berritzeguneetako IKTko aholkularien esku egongo da eta irakasle hauek jasoko dute: ikastetxeetako IKTko koordinatzaileek, 5. mailako tutoreek, ingelerako irakasleek eta Lehen Hezkuntzako 5. mailan aritzen diren PTEk.

Ikastetxeak saio horietara joan ahal izateko erraztasunak emango dizkie lehen aipatutako irakasleei. Astean bi orduko saioak izango dira eta saio horien ordu-tegiak tokian tokiko Berritzeguneak ezarriko ditu. Ahal izanez gero, trebakuntza-saioetan prozedura hau jarraituko dute:

- Lehen aipatu dugu trebakuntza-saioek bi orduko iraupena izango dutela. Ordu bat eskola-ordua izango da eta bestea ez.
- asteko egun bakoitzean lehenago aipatutako irakasleetako bat joango da saio horietara. Irakasle hori ikastetxeak izendatuko du. Modu horretan ikastetxeko eraginkortasuna bermatuko dugu.

Trebakuntza, batik bat, praktikoa izango da, ikasgelan teknologia digitalak erabiltzeak sor ditzakeen arazo teknologiko eta didaktikoei buruzkoa. Horrez gain, lehenago aipatu ditugun software libreetako programa eta aplikazioei buruzko trebakuntza ere jasoko dute irakasleek.



Trebakuntzari ekin baino lehen, galdeketa bat egingo diegu irakasleei saioak irakasleen beharretara egokitu ahal izateko. Galdeketa horren helburua IKTei buruz dakitena eta duten eskarmentua ezagutzea da.

Informazio gehiago behar izanez gero, jo ezazu zure Berritzegunera.

Begirunez,

Gasteizen, 2009ko irailaren 16an

Maria Antonia Ozcariz Rubio  
Hezkuntza sailburuordea